

- **Kultura:** Udako jaixak argazkitan
- **Entzutekuak:** Haurrentzako masaje ikastaroko arduradunari elkarrizketa

soraluzeko
hamabostekaria **205.** alea
2009ko irailaren 18an

pil-pilean



AINHARA PLAZAOLA,
arraun-arraun Kontxaraino

III.

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Banatu zure oporrak gurekin!

EPEA: uztailaren 29tik irailaren 22ra
NORA BIDALI: aldizkaria@pilpilean.com
edo 27. postakutxatila, 20590 Soraluze
SARIA: Asteburu pasa Nekazal etxe batean.

MESEDETAKO AMAREN EGUNA Irailaren 24, eguna

EGITARAUA:

- 11:00etan Mezia
- 12:00etan Luntxa
- 13:30etan Bazkari berezia
- 16:00etan Bingoa (opari bereziekin)
- 17:00etan Erromeria Unai eta Arianne trikitilariekin



Antolatzailea:

Mesedeko Andra Mariaren Egoitza

Residencia Nuestra Señora de la Merced





EGUZKIÑE ALDAZABAL



GORKA PRIETO

W W W.

“**K**aixo Eguzkiñe: sarrerako ontzian mezu berria daukazu; iturria: Pil-Pilean aldizkaria.”

Hotmail-eko nire helbidean horrela jaso dut zurekin elkarrizketan aritzeko gonbita, Gorka. Ordenagailuan irekita neuzkan bost “leiho”-ak (*gmail, hotmail, google, flickr eta fotolog*) itxi ditut, eta pentsatzen jarri naiz ba, ia zertaz hitz egin dezakegun. Kuriosoa iruditu zait “sareko” asunto hau guztia. Kuriositateak wikipedia hartu eta esanahi batzuk bilatzera eraman nau. “*inter-net: mundu osoan zabaldua dagoen sareen sare erraldoi bat da, web zerbitzuaz kanpo, fitxategien transferentzia, posta elektronikoa, elkarrizketak edo bat-bateko mezularitza eskeintzen dituen zerbitzua*”.

Gorka, sarean harrapatuta gelditu den horietako bat naiz. Egunero jasotzen ditut e-mailak gmail-en eta hotmail-en. Egunero jotzen dut wikipediara esanahiren baten bila. Egunerobilatzen dut informazioaren bat google-en. Egunero erakusten/ikusten ditut argazkiak flickr-en, fotolog-en edota facebook-en. Noizean behin hitz egiten dut aspaldiko lagunekin messenger-ez, edota skype-z. Egunero entzuten dut musika spotify edota deezer-en.

Gorka, nork ezkutatu ditu egurrezko postontziak, hiztegi entziklopedikoak, telefono kabinak, lagunak etxeko tinbrera joka, argazki errebelatuak...? ☞

“**Gorka, nork ezkutatu ditu egurrezko postontziak?**

Eguzkiñe Aldazabal

Interneta gaur egun gero eta ezinbestekoagoa bihurtzen ari da

Gorka Prieto

Iepa, Eguzkiñe, aspaldiko! Nik ere bada, Lemailez jaso dut zurekin hizketaldia (*idazketaldia esan beharko nuke?*) elkartrukatzeko gonbita.

Gaur egun, telefono mugikorrek gertatu zen moduan, e-mailik ez daukanak, praktikan ez da existitzen. Egia da beharrak sortu egiten dizkigutela, gero guk kontsumitu behar izateko, baina, arranopola, oraingoan behintzat erdi-erdian jo digute. Bailan munduan, bai adibidez udaletxe eta orokorrean, administrazioetan zenbait tramite on-line egiteko, bai bankuko kontu korrontearen gora-beherak kontsultatzeko, baita oporraldien plana egiteko ere, interneta gaur egun gero eta ezinbestekoagoa bihurtzen ari da.

Horrela, teknologia berriei bizkarra ematen jarraitu nahi duten guztiek etorkizun beltza dute, orain arteko betiko komunikazio sistemak zaharkitu eta desagertzera egingo baitute. Logikoa dirudi halabeharrez beraz, gure profila eguneratu eta postontzi elektronikoa parez-pare zabaltzeak.

Ziur nago, hemendik 40 bat urtera, gure baitailak bilobei kontatzean barre egingo digutela, nola telefonoz hitz egiteko etxera joan behar izaten genuen, ez zegoela telefono mugikorrik, telebistak ipurdi haundiak eta txuri beltzeko imaginekin zirela eta musika cassetteetatik entzuten genuela!!! “*Eta zer da cassette bat?*” To hurrengo galdera!!!! Azken finean, orain ere guretzat punta-puntakoa den teknologia beraientzat kaka zaharra besterik ez da izango, baina bueno...

Aaaaaa, bide batez, Eguz, facebook-en lagun izateko zuri gonbita pasata daukat eta ea onartzen didazun. ☞

Goguan hartzeko

“Txanpaña bakarrik edatea baño, lagunarekin hobe ardoa”

Euskal Atsotitza



GUTUNAK

Sagar erreka boladizoa amaituta

Amaitu dira Sagar Errekako boladizoko lanak. Lan hauek aurreko legealdian Foru Aldundiarekin gure taldeak adostutako lanak ditugu. Jakinekua zen ibilgailu handientzat maniobrak egiteko arazoak zeudela puntu honetan. Guzti hau kontutan edukita Foru Aldundiari arazoaren berri jakinarazi eta irtenbide bat aurkitzea erabaki eta adostu genuen. Gaur da eguna lanei amaiera eta arazoari irtenbidea eman zaiela.

Guzti hau horrela izanik, ez dugu ahaztu behar poligonoko zubiko irteera ere puntu beltz bat dela gure herriko trafikoa. Hau horrela izanik uda-

letxeko alderdi guztiek mozio bat adostu genuen Uztailaren leko osoko bilkuran. Honela zioelarik *“GI-627 errepidetik Soraluze herrirako iparraldeko sarbidean errotonda bat gauzatzeko proiektuak premia handia duela ulertuta, Foru Aldundiari biribilgunea lehentasunez gauzatu dezan eskatzen diogu.”*

Ondorioz gure taldeak lanean jarraituko du poligonoko puntu beltz horri irtenbide egoki bat bilatzeko, boladizoarekin gertatu den bezala.

SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

Eskerrak emonaz

Andramarixetan Guatemalako umien alde etaratako errifetako sarixa (*otarra*) Lorea Elizbururi tokatu jakon. Eskerrak emon nahi dotsueraz errifak saltzen laguntzen jardun zendueneri eta erosi zen-

duezeneri. Batutako dirua Guatemalako Quetzaltenango hiriko umien osasun arazuak konpontzeko erabiliko da. Eskerrik asko.

ARIANNE UNAMUNO

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi
Logotipoa: Pablo Galarraga eta Silvio Vaz
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek
erakunde hauen
dirulaguntza
jasotzen du euskara
bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Ane Osoro

Galduta

Iñoiz pentzatu al dozue Soraluzean bizitzia irla batian bizitzia bezela dala? Ozeano zabalien galdutako irla baten, azkenaldixan modan daguan telesail batekua modukua.

Itsasorik inguruan ez eta pinu itsaso urdinxka batez inguratuta bizi gara, bertan galtzeko aukera paregabian eskaintzen dabena. Eta unibersidadian hasi berrixa naitzen eran, hogen aldiz azaldu bihar izan dot lehenengo astian bakarrik nere herrixa nun daguan. Telebistakua moduan, iñork ez daki nun gaozen, ezta gure probintziako hiriburuan bez.

Soraluzera, behintzat, telefona, telebista ta irratixan seña-liak heltzen dira, eta eskerrak. Baina makiña bat zailtasunekin, nahiz eta kasu batzutan enpresa euskaldunak izan.

Hau gutxi bazan, guk be badakagu, telebistakuen antzera, "gaizto" talde bat, "irlatik" ihes egittia galarazi nahi gaittuen: Aldundiko garraio saila. Gure ingurutik komunikabide garrantzitsuak pasatzen dira, baina guretzako sarrera zuzenik bapez, nahiz eta AP-1 autopista berrixan kasuan gure herriko lurretan demaseko txikizina egin daberen.

Ongi etorri danok Soraluze uhartera.

Nerea Mendizabal Haurrentzako masaje ikastaroko arduraduna

Nerea Mendizabal, 33 urteko zestuerra. Psikopedagogian lizentziatu eta gero, umia euki eta haur masajerako hezitzaile titulua eskuratzia erabaki zeban. Hauxe dau ogibide.

Zer landuko dozue?

Lehenengo masajian, masaje instintibuan garrantzia kendu bare, teknikia be ikasten da, guraso batzuen lasaigarri. Garrantzitsuena, umiakin kontaktua eukitzen ikastia da. Saiuan barruan, masajian ostian, ikastarora hurreratzen diraneri irakurgai bat emoten dotset eta saiuan amaieran gurasuen arteko solasaldixa egitten dogu. Txikixenekin, Lua eta janan kontuak, kolikuak, psikomotrizidadia, umien negarrak, besuetan egoteko biharrak... moduko gaixak urtetzen dira. Haundixenekin, kasketak, mugak, agresibitatia, umien sexualitatia etab. lantzen dira.

Masajiak ze mesede egitten dabe?

Onurak asko. Askotan emoten dau umiekin egunero egoten garala baina bereri eskeinitako momentu eskusibuak ez dira horrenbeste izaten. Masajiak loturak egitteko balixo dau, sistema desberdinak estimulatze, kolikuak eta estreñimentua bideratzeko, esate baterako. Baina batez be, guraso eta umiak alkarrekin daren momentu horretaz gozatzeko. Eta honek da-

nak umiari etorkizunerako oinarri senduak eraikitzen lagunduko dotsa.

Zer adinekin hasi leike masajia emoten?

Erditu orduko ikastaruan partehartuleikie. Lehenengo 3 astietan gurasuekin kontaktua bizitzia izango da "masaje" bakarra. Erroparik bare besarkatu eta elkar sentitzia. Hilabete inguruan hasten gara umiakin jolasian.

Aitendako aberasgarria da masaje ikastarua?

Amak umia jaio aurretik eta gero abantaila dauka. Gainera, jaiotzian, aman "maittasun hormonak" azaleratzen dira eta izugarriko komunikazina sortzen da bixen artian. Berezixa dan zeoze. Aittak oster, umiakin kontaktuan jartzen darian garatzen ditte bere hormonak eta honek masajien bittartez ipini leikez martxan, umia ikutu eta bixen arteko komunikazina eta lotura hasten darian. ☺

Masajien bittartez komunikazina lantzen da



ELIZPE Hertz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

H.NOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)


Igogailu bi Estazio eta Zeletarainoko irisgarritasuna hobetzeko

Datozen hilabeteetan udalak bi igogailu ezarriko ditu he-



rrian. Bata, Gabolatza kaletik (*Gipuzkoano paretik*) Saciako babes ofizialeko etxeen parera iritsiko da eta bestea Estaziotik hilerri parera. Modu horretan, Estazio eta Zeleta auzoetarako irisgarritasuna hobetu nahi da.

430.000 euroko inbertsioa

Horrekin batera, udalak Estazio kalean babestutako pasabidea eta semaforoa jarriko ditu, oinezkoen joan etorriak seguruagoak izan daitezzen. Lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu ditu eta guztira 430.000 euro inguruko inbertsioa egingo da. 

Aparkaleku berriak udazkenean

Udazkenetik aurrera herriko sahesbideko bideetako bat behin betiko aparkaleku bihurtuko da, jaietan egin ohi den moduan. Bertan 172 autorentzat aparkalekua izango da. Udalaren esanetan, astebarruan herri barrua ordu batzuetan trafikoari ixtea aztertzen dihardute, (13:00etatik 07:00etara) Zubi Nagusia, Santa Ana, Kalebarren eta Gabolatza inezkoentzat erreserbatuz.

KZguneak ordutegi eta mintegi berriak ditu

Ikasturte berrira begira Soralezuko KZgunea eguenetan egongo da zabalik 16:00etatik 20:00etara. Mintegi berriak gertatu dituzte irailera. Besteak beste, Skype, Google, Blogger, Megaupload, Softonic, eta Flickr aplikazioen erabilera irakatsiko dute.

1959an jaiotako bazkaria

Urriaren 24ean 50. urtebetetzea ospatuko dute Txurruka jatetxean. Plaza zaharrean 13:00 aldera bildu eta 14:00etan talde-argazkia egingo dute Plaza Barrixan. Handik Txurruka jatetxera abiatuko dira bazkaltzera. Bertara joan nahi duenak 70 euroko diru-sarrerara egin beharko du KUTXAKo 2101 0062 19 0012351250 kontuan, izen-abizenekin batera.

Sutea San Andres auzoan

Hilaren 8an, sutea izan zen San Andres auzoko pinudi batean. Auzotarrak izan ziren lehenak iristen eta ondoren suhiltzaileek guztiz itzaltzeko lanari ekin zioten. Udako bero handia, sasiz betetako basoa eta hego haizeak sutea zabaltzen lagundu zuten, baina ez zen kalte larriak sortu.




MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21 20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



SAN ANDRES ITURGINTZA
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Memoria Historikoaren lan taldea osatzeko lehen deialdia

Berdintasun Planaren aurkezpena

Irailaren 23an, arratsaldeko 19:00etan udaletxeko Saio Aretoan, Soralezeko Berdintasun Planaren aurkezpena egingo da. Aurkezpena egin ostean, arduradunek 15 eguneko epea utziko dute herritarrek beraien proposamenak egin eta planari gehitzeko. Plana aurkezteaz gain, herriko "Emakumeen Topagunea" ere aurkeztuko da bertan.

Bizikaleko merkatariek 600 euro zozketatuko dituzte



Bizikale merkatarik elkartek zozketa ipini du martxan. Elkarteko kideen dendetan erosketak egiten dituenari errifak banatuko zaizkio. Errifa hauek 600 euroko saria irabazteko aukera emango dute urriaren 2an egingo den zozketan.

Ume zaintza - zerbitzuak ordutegi zabalagoa

Iazko ikasturtean moduan, Soralezeko Udalak Atxolin Guraso Elkartearekin elkarlanean zaintza-zerbitzua eskainiko du herri ikastetxean. Aurten luzatu egin dute zaintza denbora: goizeko 7:30etan hasi eta arratsaldeko 17:30ak arte izango da. Gainera, opor sasoian ere umeak bertan lagatzeko aukera edukiko dute gurasoek.

Herriko Memoria Historikoa berreskuratzeko lehen bileratorrean hilaren 5ean egingo da Udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan. Lehen saio honetan, lan taldea osatu eta Soraluzen gerra sasoian gertatutakoaren berri emateko pausuak zein izango diren zehaztuko da. Lan taldea osatzeaz gain, iraganeko kontuak berreskuratzeko pausuak ere zehaztuko dira.

Intxorta elkartearen babesa

Bertan izango da gainera, Debabarreneko Intxorta elkarteko kide Jose Ramon Garai jauna. Intxorta, Deba bailaran memoria historikoa bildu eta berau gizarteratzeko lanean diharduen elkarte da.

Bilera honetan interesaturik dagoen edozein herritarrek har dezake parte. ☞

Gerra Zibileko batailloietako bat, lubaki baten atzean.



Iturria: Eibarko Udal artxiboa

TXOKO KAFETEGIA 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375

TXURRUKA JATETXEA



www.txurruka.com
943 75 15 81

PLACENCIA KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45



AINHARA PLAZAOLA, arraun-arraun Kontxaraino

Ainhara Plazaola Benito, 26 urteko soraluzetarra. Gazterik Donostiara juandakua, itsasuan ondora. 10 urtez arraunlari, itsasuan eta gizonezkuendako bakarrik zala emoten zeban kirol baten zakarkerixeri aurre egitten. Arraun-arraun, Kontxaraino heldu da.

Lehorrekua izanda, noiz hasi zinan arraunian?

Arraun munduan lehenengo urratsak 16 urtekin emon nittuan, oin dala 10 urte. Lehenengo, 6 urtez, Donostiako Arraun Lagunak elkartian hartu neban parte eta gero, taldekidiak falta zirala eta, Hondarribiko taldera pasatu nintzan. Bertan emon dittut azken urtiak.

“Urte askoko lana izan da Kontxara heltzia”

Familixako inor ibili izan da arraunian?

Ez, guraso eta senidiak plaentxiarrak eta oñatiarrak dira, lehorrekuak, eta ez dabe arraun mundua ezagutzeko aukerarik izan. Anaiak bai, 4 urte gaztiagua da eta nere ondoreniaz hasi zan arraunian. Oso gustora dabil!

Kirol gogorra emoten dau. Hala da?

Arrauna oso kirol gogorra eta zorrotza da. Denbora asko eskeini bihar jako eta egunero entrenatu bihar da. Nik adibidez, egunero bi orduz entrenatzen neban, asteko zazpi egunetan. Jai egun bakarrik, abenduan 25a eta urtarrilan 1a izaten ziran. Astelehenetik barixakura, ordubete korrika eta beste ordubete ariketak egitten emoten genduan, itsasua zapaldu barik. Asteburuan osterara, zapatu eta domeketan, itsasora salto egin eta goizeko bederatzietan hasten zan entrenamendua. Danera 12 kilometro arraunian. Parrandarako asti gutxi.

Eta zer da polittena?

Dana. Itsasuan arraun egittia gozamina da. Ura zaratia eta itsasua sentitzia berbekin azaldu ezin leiken zeoze da. Taldekidiak ezagutzia be, esperientzia bat izan da eta betirako lagunak egin ditut. Familia bat osatzen genduan. Parrandara be, taldekidiekin urtetzen nintzan, ajia danok batera pasatzeko. Eta esan neike, ajia kentzeko onena, itsasuan kirola egittia dala! (barreak)

Iaz lehenengoz Kontxan emakumiak lehiatu ziran. Ze suposatu zeban arraun munduan?

Aurrerapen haundixa. Oin arte gizonentzat egindako kirol honetan, emakumiak tartia egin dabela ikustia emozionantia izatiaz gain, parekidetasun bidian urrats haundi bat emon genduan. Gainera, emakumiak be hor garela ikustera emoteko aukera politta izan zan, Kontxako estropada beti jendez lepo egoten da eta! Hala eta guztiz be, asko dago egitteko.

Zelakua izan zan egun haundixa? Ze akordu daukazu egun hortaz?

Pasada bat izan zan! Oso emozionantia, ikaragarrixa! Batez be zapatua, gure kanporaketa jokatzen genduan eguna. Portua jendez beteta zeguan, eta danak neskeri animuak emoten! Ederra benetan! Urte askoko lan emaitza izan zala konturatu ginan eta ametsa errealitate bihurtzen genbizela

“Kontxako estropada giruagaittik da berezixa”

“Arrauna
oso kirol
gogorra eta
zorrotza
da”

ohartu be bai. Urdurittasuna be haundixa zan, ez pentsatu! Hiru urte lehenago ez genduan pentsatzen hori lortuko genduanik, Kontxan lehiatzia danon ametsa da eta! Gure kanporaketetan lehen lau denborarik onenak egitten dabe aurrera, eta gu laugarren geratu ginan.

Zegaittik da berezixa Kontxako estropada?

Giruagaittik. Egun haundixan, itsasora jeisteko arrapala txaloka daguan jendez beteta egoten da, danak zu ikutu nahixan. Sarixa be tentagarrixa da. Traineru estropada danetan, dirua dago jokuan, Kontxako banderiaz gain. Irabazle danak lortzen dabe sari ekonomikua, bai lehenenguak, baita azkenak be.

Profesionaltasunak berdina suposatzen dau neska edo mutil izanda?

Bai noski! Ofizialki, pena bat da, baina jendiantzat mutilena da garrantzitsuena. Neretzat berdina -berdina da. Nekatu danok nekatzen gara!

Parekidetasunaren bidian...

Azkenian dirua da dana. Nahiz eta neskok aurrerapausuak emoteko prest garen, goikueri eta arraun elkartieri ez bajakue interesatzen, ez da



ezer egitten. Dana interesak dira. 10 urte edo gehixagoko lana izan da neskok Kontxako estropadetan lehiatzen ikustia eta ondiok asko geratzen da egitteko. Ondiok neskak eta mutilak ez gare parian, baina poliki-poliki egoeria normaltzen juingo gara.

Iaz, Kontxako estropadan.

Eta etorkizuna?

Okerrago ezin da jua; orduan, neskentzat etorkizun ona ikusten dot nik. Zailena hastia izaten danez, behin hasitta eta jarraipen minimo batekin aurrera egingo dogu! Gizartian babesa be, gero eta haundixagua da.

Eta zuk, zegaittik laga zenduan arrauna?

Denbora kontua. Goizian lan egin bihar dot, arratsaldian ikasi egitten dotelako eta egunak 6 ordu gehixago izan biharko littukez nik arraunian jarraitzeko! Pena haundixa emon zostan eta oin nabil “desengantxe” garaixan, azkenian drogia moduan, bihar bat bihurtzen da eta. Zeinek daki, datorren urtian astirik badaukat...Entrenatzaile titulua lortu dot dana dala. 🏊

MOTZIAN

Arraunlari bat:

Mikel Urbañanos (Hondarribi)

Arraun talde bat:

Donostia Arraun Lagunak

Lehiarako leku bat:

Kontxa

Itsasoa ala ibaia:

Itsasoa

Soraluze edo Donostia:

Soraluze

Itsaso barea edo zakarra?

Zakarra nahixago

Talderik gogorrena:

Galegak

Afizio bat:

Ibiltzia



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Udalak irisgarritasuna hobetu nahian, beste bi igogailu jarriko ditu. Bata, Gabolatx paretik Sasiako babes ofizialeko etxeetara eta bestea, Estaziotik hilerrira. Guztira 430.000 euroko inbertsioa egingo du.

Zela ikusten dozu herrixan beste bi igogailu ipintzia?

JABIER MENDIKUTE
Enpresaburua

XABIER RETOLAZA
Biltegiaina

ARIANNE RODRIGUEZ
Etxekoandria

MARGARITA ALBENIZ
Etxekoandria




Egixa esan, ezer egitia baino hobea da bi igogailu honek eraikitzea. Neri, herriko zentrutik estazino kalera juango zan bat gustatuko jatan baina honek bixak be egoki ikusten ditud, batez be jende nagusixandako.

Bi igogailu honek egitia ez dot guztiz biharrezkua ikusten, baina ipintzen badittue erabiliko doguz. Lekuak ostera egokixak dirala pentsatzen jataz, autobus geltokixa eta eskolia jende askok erabiltzen ditudalako.

Herrittarrak igogailuak Herabili bihar baldin badittue, ondo ikusten dot honek eraikitzea baina gero mantenimendua zela egin ikusi biharko da. Umiak eskolara igotzeko igogailua ikusten dot preminazkue-na.

Oso ondo pentsatzen jata beste bi igogailu ipintzia herrixan; gehixago esango dotsut, biharrezkua ikusten dot. Ni Estazino kalian bizi naiz eta ondiok aldapia ondo igotzen dot baina jende nagusixak gustora hartuko dau barri hau.

KOMIKIXA



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

etxera

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbeberia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Udako jaixak iruditan

Musika Eskolako matrikulazioa zabalik

Izena emateko lekua dago oraindik musika eskolan eta interesatuta dagoena lehenbailehen matrikulatu dadila eskatu dute arduradunek. Horretarako, musika eskolara jo (Frontoi Kalea 1) edo **943 75 15 44** telefonora deitu.

Dantza taldeko txikiak herriz herri

Ikasturtea hastearekin batera, Oñati eta Antzuolako Euskal Jaietan parte hartzeko gonbitea jaso dute Urrats Dantza Taldeko gazteenek. Domeka honetan Oñatira joango dira eta urriaren 20an Antzuolara.

Euskal Dantzak ikasteko matrikulazioa: Arduradunek jakinarazi dutenez, ikasturte berrian Urrats Dantza Taldean izena eman nahi duenak, urriaren amaierara arte itxaron beharko du, orduan irekiko dutelako matrikulazio epea. Eskolan eta institutuan egingo dute zabalpena.

Mesedeetako Jaiak gaur hasiko dira



Gaur, umeentzat jolasak, txistor jana eta mus eta tute txapelketa antolatuta dira, sari benetan potoloekin. Bihar, erraldoi eta buruhandiak eta herri bazkaria izango dira. Domekan berri, 40 saski zozketatuko dituzte.



Iturria: N. Isasti

Andramaixak:

Andramari Eguneko tortila lehiaketa Piedad Gallastegik eta Santiago Gonzalezek irabazi zuten. Bigarrenak Saturnino Gil eta Conchi Elkoro izan ziren eta hirugarren saria Mari Carmen Carrascok eta Pura Corcherok jaso zuten.



Iturria: A. Aizpuru

Osintxuarrak:

Osintxuko jaiak hasiera emateko, urteroko bisita egin zuten osintxuarrak gurera. 20 bat lagun hurreratu ziren herrira mozturro eta guzti. Gaztetxean merienda goxoaz gozatzeko aukera ere izan zuten.



Iturria: I. Aldazabal

San Martzialak:

Irailaren 5ean eta 6an jende asko izan zen San Martzialera, auzoko jaiak ospatzera. Umeentzako jolasak, zezenak, berbena, kontzertuak, salda, zaku lasterketa, meza, paella lehiaketa, bertsolariak eta XIII. Mus txapelketaz gozatzeko aukera izan zen besteak beste.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Discinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

III. Marraskilo Tourra bihar izango da

Soraluzeko Mendi Taldeak Santolatutako mendi ibilal-

diak iazko ibilbide bera izango du, 35 kilometrokoa. Mendizaleek goizeko 6etan ekingo diote Plaza Barritik hasita Sagar-errekana gora eta mendialde biak zeharkatuta, Boskoittitik behera Plaza Barrixan amaituko dute. Ibilbidean zehar partaideek hornidura postuak izango dituzte eta 15etan bazkaria izango da denentzat. Parte hartzeko ize-na eman ez dutenek, bihar bertan izango dute aukera (*lekurik bada*) eta 15 eurokoa izango da inskripzioa. 🌀



Joseba Garcia hamargarren, Mendiko Euskal Txapelketan

Mendiko Euskal Automobilismo Txapelketako 5. froga, La Antigua, Zumarragan izan zen. Bertan, Joseba Garcia soraluzetarrak 21. postuan amaitu zuen, 00:02:39'029ko denbora ginda. Zumarragan 13 puntu

irabazi eta guztira 42 punturekin, sailkapen orokorrean bi postu aurrera egin eta hamargarrenean dago orain. Hurrengo froga hilaren 26an izango du Oñatin, arratsaldeko 15:30etan. 🌀

Mendi irteerak martxan dira

Soraluzeko mendi taldeak egin du lehenengo irteera. Aramaixoko Gantzaga auzotik abiatu eta Urkiolara joan ziren, Anbotostetik igarota. 103 lagun elkartu ziren lehenengo mendi irteera honetan. Hurrengoan Udalatik hasi eta Besaidera joango dira, hilaren 20an.



EMAITZAK

FUTBOLA

Mutriku F.T. - Sora (Erreg.) 0-1

PELOTA

Galdakaon

Mtz de Irujo - Beroiz 22

González - Laskurain 16

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 19, 10:15etan Argixaon

Urola K.E. - Sora (Kad)

Zapatua 19, 18:00etan Estalan

Sora (Erreg.) - Zestoa

Zapatua 19, 16:00etan Estalan

Sora (Jub.) - Bergara

PELOTA

Barixakuan Logroñon 19:15

Saralegi - Patxi Ruiz

Retegi Bi - Laskurain

Soraluze FTK Antzuolan entrenatuko du

Ezoziko zelaiko lanek iraun bitartean, herriko taldeek Antzuolan entrenatuko dute. Udazken honetan hasi eta hiru hilabetez iraungo dute lanek. 800.000 euroko aurrekontua belar artifiziala, argiketa instalazioa, ura eta aldagela modularrak ipintzeko erabiliko da.






ZORION AGURRAK



Josu Leturiondo Garcia
Irailaren 9an 2 urte!!
Zorionak eta muxu handi
bat etxekoan partez!




Maren Etxabe
Abuztuaren 21ean 2 urte!
Zorionak, familia guztia eta
Koko-ren partez bereziki.
Patxo pila-pila bat.



Eñaut Cerrejon Atxa
Irailaren 11an urtebete!
Zorionak eta muxu handi bat
etxeko guztion partez!



**Jon Gallastegi
eta Irati Iñurrieta**
Irailan 1ian eta abuztuan 27xan
20 urte betetzen ditzuzelako!
Zorionak eta muxu handi bat
etxekuen partez!



Joel
Irailaren 14an 3 urte
betetzen ditzuzelako
Zorionak eta muxu
handi bat gurasoen
eta Yagoren partez!



**Maren Unamuno
eta Claudio Unamuno**
Irailaren 9an eta abuztuaren 28an
5 eta 66 urte bete ditzuzelako
Zorionak eta muxu handi bat
etxeko guztien partez!



Mikel Ramos Alonso
Abuztuan 13an 6 urte!
Zorionak eta patxo pila bat
familiakoan partez!



Eider Rivero Revuelta
Irailaren 1ean urteak
betetziagaitik zorionak
eta muxu handi-handi bat
gurasoen partez!



**Izaskun Azurmendi eta
Aiuri Gisasola**
Zorionak bikote!!
Irailan urtiak eta urtia bete
dozuzelako!
Ilargirainoko patxo handi bi
etxekuen partez!



Joseba Gil
Zorionak Realzale!!
Aurten 7 urte!
Patxo pila bat maite
zaittugun guztion
partetik! Bereziki,
Einer, ama eta
aitatxoren partez!



Sugar Ostolaza Lakuesta
Abuztuaren 10ean jaioa
Ongi etorri polittori!
Zurekin bigarren poztasuna
heldu jaku etxera!
Asko maite zaittugu!
Iraultza eta gurasuak.

jaiotakoak

AIMAD Ouardi Ben Driss
YAIZA ROMERO ARRASATE
NAROA ROMERO ALAMINO
ORTZI ROMERO ALAMINO
EGOITZ ROMERO ALAMINO
SUGAR OSTOLAZA LACUESTA
EKAITZ GARMENDIA GALARRAGA
ANE BASTARDO MARIA
NAHIA AVECILLAS FRANCO
IRENE AGUIRRE ARRILLAGA



hildakoak

ELISABETE EPELDE EZENARRO
MARIA FELISA CHURRUCA MAYORA
LUIS JAVIER OREGUI BOLUMBURU
EULALIA CARTON ALVAREZ
JOSE ANTONIO ARGARATE MAIZTEGI
JOSE MORENO GIL
BENEDICTA ABOITIZ EGUIA
JOSE URRUTIA IÑARRA
NARCISA ELIZBURU GALLASTEGI
MARIA ROSARIO IZAGUIRRE ARIZNABARRETA



LEHIAKETA

► **Zein ageri
da argazki
honetan?**



► **Saria:**
Mendirako motxila
eta mendian ibiltzeko makila

► **Irabazlea:**
Aurreko alean ez zen lehiaketarik izan

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: J. I. Laskurain

82-83ko Sorako Taldea

Argazki hau, 1982. urtekua da. 82-83 urtietako denboraldixan hau izan zan Soraluzeko futbol talde ofiziala. Inguruko herrixetan fitxaketak egitten zittuen sasoi hartan, Bergaran, Azkoittin eta Legazpin esate baterako. Ur faltan zeguan orduan zelaixa. ☞

ARGAZKIXAN:

Goixan: Alkorta, Oroz, Diez, Lizarralde, Garitano eta Laskurain.

Behian: Oteiza, Leturiondo, Santi Otaegi eta Gallastegi.



ELIZABETE EPELDE

Familia ederra
zu zara hazia
baina sasoi onean
zu joan joanarazia,

zure lurreko poza
zure alegantzia
Agur, betiko Eli
eta goraintzia.

1- Etxebizitza

Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.

- Gabolatz kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu

- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.

- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.

- Baltegieta 17.ean etxea salgai. Etxe honek hirur logela, sukaldea, bainugela eta despentsa ditu. Igogailu berria dauka eta oso argitsua da. Oso prezio onean dago. Deitu eta galdetu.

- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hirur logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.

- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hirur logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759078 mugikorrera (Ainhoa).

2- Lana:

- Neska gaztea naiz, Haur Hezkuntza ikaslea, eta umeak zaintzeko prest nago. 659 297 517

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 666 815 008 - 679 878 676

Atal honetako iragarki guztiak doan dira.

Iragarlearekin kontaktuan jartzeko:
soraluze.iragarkilaburrak.com

Iragarkiak jartzeko:
943 75 13 04 telefonoan
www.plaentxia.com
soraluze.iragarkilaburrak.com

665 239 665

3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.

4- Denetarik:

Salgai:

- Bizikleta saltzen dut. Duela bost hilabete "Puesta a punto" eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943 75 14 91

- Junkers ur berogailua salgai erdi prezioan. Gas ala butanorako erabilgarria. Egungo legedirako aproposa. Oso gutxi erabilia.

Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628 233 464

- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655 721 190 eta emaila:tatxus@gmail.com. IKER

- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf: 655 721 190 eta emaila:tatxus@gmail.com IKER

- Guatemalara bidaltzeko ordenagailu eramangarri bat behar dut. Eskola xume bateko irakasle batentzat. Internetera konektatu daitekeena. Egoera onean dagoena.



**Batzuetan,
biderik laburrena
da onena**

...garena ikasteko!

**Euskaltegiko izen
emateko egunak:**
Martitzena,
Eguaztena,
Eguena

Ordua:
19:00etatik
20:00etara

Telefonoak:
Soraluze: 943 75 14 34
Eibar: 943 20 13 79

E-mailak:
Soraluze@aek.org
Eibar@aek.org

**ikasi euskara
eman izena**
Azterketa ofizialok eta titulu homologatuak

æek-n
www.aek.org

Mutxiko Egunerako autobusa Arrangoitze (Lapurdi)

Egun pasa, jai giroa,
dantzarako aukera...

Noiz: Urriaren 11an


Izena emateko:

Pil-pileanen edo Iratxo goxodendan

Epea: Urriaren 5a

Autobusa 9etan irtengo da Estaziotik

Antolatzailea:

**MUTXIKO
EGUNA**

ARRANGOITZEN